




Pertsona- eredua:

**-TASUNAK
ZEHAZTEN**

AURKIBIDEA

Agurra	_03
Gai Nagusia	_04
Berrikuntzak	_08
Langileak	_12
Senideak	_14
Urmendi	_16
Hatzak bete lan	_20
Argazki-albuma: lhoteak, Inauteriak, Korrika eta Ikastola Eguna	_36
Taldea	_38
Laburrak	_42
Eskolaz kanpokoak	_48
Oiartzo	_50
DBH4ko ikasleen agur bertsoa	_51

TXINPART

Haurtzaro Ikastola
Elorrondo z/g - 20180 Oiartzun
T.: 943 49 16 59
haurtzaro@ikastola.eus
LG: SS-129 / 2001

DISEINUA ETA MAKETAZIOA
DIXIDU Diseinu Grafikoa

AGURRA





Kaixo, irakurle!

Honekin batera iritsi gara ikasturte amaierara. Gure aldizkariaren 81. zenbakia bezain oparoa eta betea izan da 23-24 ikasturtea. Ziento bat abentura eta desbentura bizitu ditugu elkarrekin, batzuek gozo-gozoak eta besteak, berriz, ez hainbeste. Baina denetan izan dugu zer ikasi, denek eskaini digute zer hausnartu eta, batez ere, gure proiektua osatzeko mamia.

Ikastolen Elkartearen marko pedagogiko berria jaso genuen azaroan, eta geroztik hark dakartzan berrikuntzak, pertsona ereduari dagozkionak, aztertzen eta lantzen aritu da irakasle taldetxo bat, aurrerantzean gure Hezkuntza Proiektu osoan aplikatu ahal izateko.

Zenbat balio eta zenbat gatazka lantzen ahalegintzen garen bizikidetzaren eta enpatiaren betaurrekoak jantzita, egunerokoan pertsona hobeak izateko, guztiak onartuak izateko, gizarteko kide emankorrak izateko, besteekin elkarrekintzan GU indartsuago bat eraikitzeke eta NI osoago bat.

Irakurketaren plazeraz disfrutatzen ahalegindu gara, GURE Liburu Txokoak hilabetero eskaintzen digun liburu eskaintzarekin batera, beste behin ere, bozkatu ahal izan dugu gehien gustatu zaizkigun liburuak eta ilustrazioak.

GURE ikastolako Agenda 2030eko gidarien eskutik Ingurumen Aste Ekosozialari leihoa ireki diogu lehenengoz, Haurtzaroren birika aire garbiz bete dezagun.

Ezin dugu ahaztu GURE ekosistema honetan euskara protagonista nagusia dugunean, aurtengoa ikasturte berezia izan dela gure hizkuntzarentzat, Eskuttunek hauspotutako hainbat ekimenez gain, Korrika, Redadeg eta Beskoitzeko ikastolaren aldeko hainbat keinu egin baititugu.


Eta hori gutxi balitz, zenbat ordu sartu ditugun, gainera, hanka puntetan eta gerriak mugitzen, eskuetako hatzekin musika egiten, xakeko maisu-jokaldiak pentsatzen, potorik ez egiteko errimak biltzen, oztopoak saltatzen, aztiekin eta sorginekin amesten; hots, euskaraz GURE aisia janzten.

Digitalizazioaren garaian bizi garen honetan, teknologiari eta komunikazioari esker gure proiektua lau haizetara zabaltzen dugula ezin ahanztu.

Azkenik, eskerrak eman nahi nituzke. Eskerrik asko erabakiak, batzuk errazak eta besteak zailagoak, hartzen aritzen zareten eta laguntzen duzuen guztioi, borondatez proiektua bizi eta bizitza ematen duzuelako dena delako lan talde, kontseilu patronatu, batzorde edo ordezkari-guneetan.

Gozatu udaz eta indarberritu hurrengorako!

01. GAI NAGUSIA



NON IKASI ASKATASUNEZ ERABAKITZEKO AUKERAZ...

Zenbat aldiz entzun dugun ikasteak libre egiten gaituela. Bada, jarraitu beharko dugu askatasunaren bila, baina, batez ere, galtzen ari garen konfiantzaren eta pazientziaren bila.

Nazio Batuen Batzar Nazionalak adostutako nazioarteko giza eskubide nagusienetakoa ikastea da, eta hura bezain eskubide **askatasunez erabakitze**ko aukera izatea. Hala izanik, badirudi gure Gobernuari azken boladan, Hezkuntza Lege Berriarekin eta onarpen dekretuarekin, ahaztu egin zaiola azken hau; izan ere, printzipio nagusia libreki ikasteko eskubidea izanik, hainbat familia ditugu Euskal Herrian haien seme-alabak non ikasi erabakitze ahalmena ukatuta eta, ondorioz, eskubideak urratuta ikusten dituztenak.

Nork pentsatuko zukeen 2020ko hamarkadan halakorik gertatu zitekeenik, alegia, familia bati bere umeak askatasunez matrikulatzeko aukera ukatuko zitzaionik. Horixe da Haurtzaro Ikastola hautatu duen familia bati gertatu zaiona: alabaren heziketarako Gure ikastola aukeratu ondotik, Hezkuntza Sailak bere ordeaz erabaki ez ezik, non ikasi inposatu diola.

Nola heziko ditugu biharko umeak askatasunean, askatasunean erabaki ahal izateko eskubiderik gabe? Hori al da gure Hezkuntza Sistemaren soluzioa haiek gelak itxi ez ditzaten? Eta ikastolak gara segregatzaileak?

Eta nahikoa ez balitz, sasi publikotasun bati lotutako diskurtsoa zabaldu bidenabar, GU itotzeko kanpainari ekin diote, finantzazio ratioak eta itunak murriztuz. Noiz konturatuko dira publikoa dela gizarteari zerbitzua eskaintzen diona, eta gu haiek bezain publiko garela? Gu Hezkuntza Sistemaren garraio publikoa gara, heziketaren bidaia/bidea egiteko billetea hartzen dugunak.


Horregatik, ez gaitezen txikieriekin despistatu eta jabetu gaitezen zein diren Gure benetako lehenetsunak: ikasleak, kalitatezko heziketa eta ikastola eredua.

Pertsona-eredua: -tasunak zehazten

Euskal Curriculumuma ardatz izanik, konpetentzien garapenean oinarritutako hezkuntza ereduen aldeko hautua egin genuen duela hamarkada bat ikastolan, eta, geroztik, ez gara geldirik egon. 2023-24ko ikasturte osoa eman du Haurtzaro Ikastolaren talde pedagogikoak Bizitzarako Hezkuntza, Euskal Curriculumuma, gure Hezkuntza Proiektua eta Ikastolen Hezkuntza Marko Orokor berriaren diskurtsoa bateratzen. Guztia galdera bakar bati erantzuteko noranzkoan: **Zer nolako ikasleak nahi ditugu oinarritzko hezkuntzaren amaieran?**

Ikasleen irteera profiletik harago, **pertsonarengan zentratutako hezkuntza eredu**an sinesten dugulako, gure egitekoa pertsona bere dimentsio guztietan (soziala, kognitiboa, motorra, emozionala, existentziala...) garatzen laguntzea dela ulertzen dugu, askotariko eremuetako ezagutzak eraikitzen laguntzetik harago. Alegia, egiten ikastetik harago, izaten ikasteko hezkuntza-proposamen bat jarri nahi dugu mahai gainean eta pertsona ereduaz hitz egin. Baina pertsona-ereduaz ari garenean, zertaz ari garen eta zertaz ez garen ari azaldu beharrean gaude. Ez gara esaten ari molde bereko pertsonak nahi ditugunik. Era berean, ez gara pertsonen arteko aniztasuna eta aniztasun horren beharra ukatzen ari. Pertsona-ereduaz ari garenean, bereizgarri jakin batzuez ari gara, baita bereizgarri horietako bakoitza definitzen duten ezaugarri multzoez ere. Hau da, bizi dugun, aurreikusten dugun eta eraldatu nahi dugun errealitate horretako pertsonak zer -tasun izatea nahi dugun zehazten ari gara.

Horregatik, proposatzen dugun pertsona-ereduaren 5 bereizgarriak eta ezaugarriak bultzatu nahi ditugun **baloreen** planoan kokatzen dira: **euskalduna, barne-sendotasuna duena, erabakitzaile-ekintzailea, eraldatzailea eta kooperatiboa**. Bereizgarri horien ezaugarriak eta -tasunak zerrendatu ahal izateko, ezinbesteko ariketa izan da 5 bereizgarriak irakasle guztien artean adostasunez janztea, alegia, klaustroak guztiak berdin ulertzeko ariketa egitea, ondoren, komunitate osoak eragiketa berbera egin ahal izateko, uste dugulako ezinbestekoa dela hitz bakoitzari ematen diogun esanahi zehatza, edukia, GU guztiokin partekatzea. Prozesua zenbat eta parte-hartzaileagoa izan, orduan eta kohesio- eta adostasun-maila handiagoa egongo da ikastolaren hezkuntza proiektuaren helburuan, helburu hori lortzeko ibilbidean eta ibilbide hori egin ahal izateko behar diren aldaketetan. Eta horretan jardutean, zehaztu ahal izango ditugu bereizgarri horien ezaugarriak.



Ahalegin horretan, Hezkuntza Marko Orokorraren baitan zehaztuko eta definituko dugun pertsona-ereduari begirako hezkuntza-ildo estrategiko orokorrak kontuan hartu beharko ditugu, eta hezkuntza-ildoak definitzeko printzipio psikopedagogikoetan oinarritu.

Une honetan, ikasturtea amaitzeaz denean, pertsona ereduaren ezaugarriak eta bereizgarriak lantzeko bigarren ariketa kolektiboa egin behar du klaustroak

eta gizarteratzea izango da datorren ikasturterako erronka. Ondoren, etorriko dira beste batzuk, besteak beste, pertsona ereduak garatzeko konpetentzien, metodologiaren eta ebaluazioaren berrikusketa eta zehaztapena.

Aurrerantzean lan eskerga dugu egiteko, lan zoragarri eta erakargarria, ikastolaren iparrorratza izango dena; guztion artean egingo duguna.



02. BERRIKUNTZAK



HAURTZARO IKASTOLAKO INGURUMEN ASTE EKOSOZIALA

Garapen Jasangarriko Helburuen (GJH) markoan, Haurtzaro Ikastolan Eskolako 2030 Agenda taldeak urteak daramatza ikastola jasangarritasunean eragiten eta curriculum berriak ikuspegi ekosoziala zabaltzeko hainbat urrats egiten, ikasleei protagonismoa emateko, ahalduntzeko eta kontzientzia ekosoziala garatzeko.

Aurtengo Aste Santuko oporren aurreko egunetan, ikastolan jasangarritasunaren helburuei heldu ez ezik, gure lan eremuak zabaltzeko asmoz, lehen Aste Ekosoziala antolatzea ere lortu genuen. Martxoan Ingurumenaren aldeko hainbat egun ospatzen direla eta, Haurtzaro Ikastolak aurrean, lehen aldiz, Ingurumen Aste Ekosoziala antolatu zuen martxoaren 14tik 21era.

Agenda 30eko lan taldeak diseinatu eta ikastolako kideekin batera osatu genuen lehen Aste Ekosoziala. Aste horretan zehar etapa guztietako

ikasleek (HH, LH, DBH) Energiaren inguruko lanketa egin zuten. LH eta DBH etapetako ikasleek egin zituzten ekintza eta jardueren artean honako hauek aipa ditzakegu:

Hasteko, DBH4. mailako Lanbide Jarduerari Aplikaturako Zientziak ikasgaiko ikasleek ikastolan bertan sortzen diren hondakinak ezagutzeko jardura egin zuten. Hain zuzen ere, jolaslekuan dauden zaborrontziak aztertu zituzten. Alde batetik, hondakinak gaika ongi sailkatuta ote zeuden begiratu zuten. Bestetik, gaizki zeuden hondakin horiek zein motatakoak ziren ere ikertu zuten.



<https://youtu.be/Ag2MZCsAgJo>



Datu horiek bildu ondoren, ikastolan hondakinen kudeaketa hobetzeko neurriak landu eta proposatu zituzten astearen bukaeran, aurrerago ikusiko dugun bezala.

Energia iturriak ezagutzen

- Agustin Vital, ikastolako jasangarritasun azpiegituren arduradunak gaiarekiko ikastolaren egungo egoeraren azalpena ikasleei eman zien; ikastolak auditoria energetikoa egin zueneko berriekin batera. Orduetik, 8-9 urte pasatu ditu kontsumoa gutxitzen. Lanketa horren ondorioa dira eguzki plakak, ikastolako energia iturri bakarra.
- Xabier Landa mantenuko arduradunak ikasleei egungo pellet galdararen sistema, pelletaren eta galdararen funtzionamendua, eta horien eragin energetikoa ulertzeko behar adina azalpen eskaini zizkien. Lehen gasolioa erabiltzen genuen ikastolan. Duela lauzpabost urte pellet galdara erabiltzen hasi ginen, ur beroa eta berogailua izateko.
- Bestetik, Oiertzungo Argiturri Elkarteko gurasoa den Xabier Irigoien ikastolara etorri zen. Xabierrek

Argiturri Oiertzungo energia berriztagarrien komunitatea zer den eta zertan ari den ikasleei aurkeztu zien, elkarteko helburu eta erronkak zehaztuz; hala nola, **jasangarritasuna** (gaur egungo energia sistema aldatzea, jasangarria izan dadin. Energia eskuragarria izateko eta pobrezia energetikoari aurre egiteko), **burujabetza** (herritarrak ahaldunduz: zenbat energia, nola sortu eta nola banatu nahi dugun erabakitzea, herrian kontsumitutako energia bertan sortuz) eta **berriztagarritasuna** (kontsumo eredua aldatzen hastea).

Aipatu hiru ekintza horiek DBHko eta LHko goi zikloetako ikasleei eskaini genizkien. Hauekin batera, ikasleek mailaz maila eta arloz arlo, efizientzia energetikoa areagotu ahal izateko beste hainbat jarduera egin zituzten; hala nola, klima aldaketari aurre egiteko **keinuen iragarkiak** (ikasleek sortutako bideoak <https://hautzaroizentzia.wordpress.com/category/agenda-2030/> blogean ditugu), bertsoak, aztarna ekologikoaren kalkuluak, hausnarketen argudio testuak, irudiak...





Hondakinen ekodekalogoa

DBH4ko Lanbide Jarduerari Aplikatutako Zientzien ikasleek, **ikastolan sortzen ditugu hondakinen karakterizazioa eta ikerketa egin ondoren, Hondakinen Ekodekalogoa diseinatu eta osatu zuten.**

Aste Ekosoziala bukatu eta hurrengo egunean, martxoaren 22an, ostirala, DBHko gela guztietan aurkeztu zuten. Denok erraz egin ditzakegun ekintza sinpleak.

Aurten sortutako, antolatutako, Aste Ekosozialari amaiera emateko ekimena izan zen.

Balorazio positiboa

Hori guztia antolatzeko eta aurrera ateratzeko **Talde Berdeko kideak** buru-belarri ibili dira ikaskideak sentsibilizatzen. Aldaketa klimatikoaren aurka gure esku dauden keinu batzuk aukera zituzten eta horien lanketa zeinen garrantzitsua den azaldu zuten gelaz gela.

Lehen Aste Ekosozialaren balorazioa oso positiboa izan da. Energiaren gaia oso zabala izan arren, ikasleek gertuko errealitatea ezagutzeko aukera izan dute. Ikastolan eta herrian kontsumitzen dugun energia nondik datorren eta zenbat den berriztagarria ikusi dugu; eta, batez ere, energia kontsumo arduratsu bat egitea zeinen beharrezkoa den.

Izan gaitezen arduratsu, ez dago B planetarik!

ERRETI- ROAK

Jaione
Iragorri

Eskerrik asko

Koro
Uria

Erretiroak eta urrezko ezteiak

Urtero egin ohi dugun moduan, langileen erretirorik bada, *Txinpart!* aldizkariaren urteko bigarren zenbakian jasotzen ditugu, omenaldi gisa.

Gure etxe honekin lan harremana bukatzen dutenei gero arte esaten diegu lerro hauetatik, fisikoki, denok elkartuta ikastolan omenaldi txiki bat egiteaz gain.

Lan harremana eteten dugu, ez ordea bestelakoa. Gure ondoan jarraitzen baitute gehienek: sostengatzen, babesten, bidelagun.

Aurten, eskerrak eman nahi dizkiegu, bereziki, Jaione Iragorriri eta Koro Uriarteri, Haurtzaro Ikastolari emandako guztiagatik. Baina, esan bezala, ez dizuegu agur esango, laster arte baizik. Goza ezazue datorkizuen bizitzaren aro berriaz!

25. urteurrena

Aurten, badugu langileen aldetik beste ospakizun bat ere: urrezko ezteiak. Kristina Boan gure zuzendariak 25. urte bete ditu Haurtzaro Ikastolan lanean. Azkar esaten da! Zorionak!

Beste horrenbeste ez dugu esango, baina hurrengoak ere emankorrak izan daitezela: ematen duzun adina jaso dezazula!



04. SENIDEAK



DAGOEN INPLIKAZIOA EZ BALEGO, KORRIKA EZ LITZATEKE AURRERA ATERAKO

KORRIKAKO PETO ZAHARRENAREN LEHIAKETA MARTXAN JARRI GENUENEAN, AITONA JUANTXOREN ISTORIA EZAGUTU GENUEN. ANE ALABAREN PETO GUZTIAK EKARRI ZITUEN, ETA KONTATU ZIGUN LEHENENGO KORRIKAK ANTOLATZEN IBILI ZELA, HAINBAT ANEKDOTAREKIN BATERA.

EZ ZAIO GUSTATZEN PROTAGONISMOA, TALDE LANEAN ARITUTAKOA DELA NABARMENTZEN DU ETA TALDEA DELA PROTAGONISTA. BAINA BERAK EGINDAKO LANA KONTATZEKO ETA GORAIATZEKO BADA. HORREGATIK EKARRI DITUGU HONA BERE BIZIPENAK.



- Noiz hasi zinen AEK-n?

- Ni AEK-n sartu nintzen 1980. urtean. Orduan sortu genuen Rikardo Arregi euskaltegia Donostian.

- Eta Korrikan?

- Urte horretan bigarren Korrika zen, Donostian bukatu zena, 1980koa. Ni Donostiako antolatzaileetarik bat nintzen, koordinatzailea, baina taldean lan egiten genuen, ez dut nahi pertsonalki hitz egin, nitaz.

Garai horretan, urte horretan, Korrika ez zegoen babestua ofizialki, eta eragozpen dextente izan genituen, baina hala ere, aurrera atera genuen.

- Aurretik irakaslea zinen?

- Hori da, AEK-ko irakaslea nintzen, baina Korrikarako liberatu ninduten. Nire arduraldi osoa Korrikarako zen.

- Donostiakoa ez zen zure Korrika bakarra izan...

- Bigarren Korrikan batean ere egon nintzen, Bilbon bukatu zena, orduan koordinazioa eramaten nuen talde batekin, baina Gipuzkoa osokoa. 3. Korrika zen, 1983koa. Bi urte eta erdiro izaten zen gutxi gorabehera. Orduan ez zen arazorik izan, nahiz eta askoz ere lan handiagoa izan zen.

Eta nik parte hartu nuen hirugarrena izan zen Iruñean bukatu zena. Orduan alabak lau hilabete zeuzkan. Hura ere ikaragarria izan zen, jendetzak parte hartu zuen. Eta inportanteena zen, beti esan izan dut, herri guztietako kolaborazioa. Zeuden

batzordeen kolaborazioa zoragarria zen. Lan ikaragarria egiten zen, ez AEK-ko kideek bakarrik, gure inguruetako jende guztia inplikatzeko. Horri esker atera zen aurrera Korrika. Gaur egun ere, inplikazio hori ez balego, Korrika ez litzateke aurrera aterako behar den bezala.

- Zein oroitzapen dituzu?

- Hor oroitzapen kurioak daude. Donostian sartu ginenean, nola oztopoak izan genituen instituzioetatik, udaletxetik, ez genituen baimenak zenbait gauza egiteko, eta nola eduki genuen udaltzaingoaren babes osoa. Donostiako sarrera batean, halako hiri batean, trafiko oztopo handiak daude. Eta gogoan dut nola etorri ziren babes osoa ematera.

Eta beste anekdota txiki bat: ni nioan Korrikaren lekukoaren aurretik, gure auto barruan, atzealdean eserita. Gaur egun politikaria den Maddalen Iriartek Herri Irratian len egiten zuen, eta Iñaki Elorza Txapas dagoeneko erretiratu... Biak zeuden gurekin. Gogoan dut nola egin zuten Korrikaren bukaera oso-oso autoaren atzealdean, zuzenean retransmititzen.

Hor arazoa izan zen herrietatik asko atzeratu zela Donostiarako sarrera. Bigarren Korrika izanik, jendeak oraindik jolas moduan hartzen, eta ez zituen ordutegiak, eta atzerapen ikaragarria izan zuen, baina hala ere gogoangarria izan zen.

- Badituzu inplikazioaren oroitzapen politik eraiakin batzuekin ere...

- Donostian egin genuen hartan, bigarren Korrikan, oztopo instituzionalak zeuden, agian ez boikoteraino, baina erraztasunik batere ez ziguten jarri, ez zegoen babesik, justu kontrakoa. Baina harremana genuen jende inportantearekin, Aurrezki Kutxa Munizipalean zeudenekin (gaur egun Kutxa dena), harreman pertsonala genuen hainbat erakundeetako buruekin ere: Rikardo Etxepare, Patxi Zapiain (biak Irungo zinegotziak ziren), eta horiek kargu inportanteak zituzten hainbat instituzioetan. Hain zuzen ere, pertsona horien laguntza handia izan genuen. Lokalak utzi zizkiguten antolaketarako, adibidez, gauzak prestatzeko, alegia.

Egia esan, urtero izaten genuen laguntza. Gogoan dut Donostiako zentro-zentroan, beraien egoitza nagusiaren gainean, pisu oso bat, 200 metrokoa, utzi zigutela antolaketarako, erraztasun guztiekin. Hurrengo Korrikan ere izan genuen beraien laguntza Grosen jabetzan zeukaten biltegi handi-handi bat, Zabaleta kalean, antolaketarako, gure autoak sartzeko... utzi ziguten.

Horrek sekulako erraztasunak eman zizkigun. Geroztik gauzak asko aldatu dira.



- Ordutik gorde dituzu peto horiek guztiak?

- Ez, petoak nire alabak gordetakoak dira. Berak bizi izan du Korrika, geroztik ere, maila guztietan. Berak parte hartu izan du eta bereak dira petoak. Amak erabiltzen zuen lekukoa ere badauka Anek eta horrekin egiten du korri.

- Baina ez AEK-ko langile bezala eta zuk ere ez...

- Hori da. Nire alabak ingeniaritza ikasi zuen, baina beti hartu izan du parte Korrikan eta asko bizitu du, jaioberria zenetik. Nik ere, ez nuen jarraitu koordinatzaile gisa eta lanbidez erabat aldatu nuen, baina beti parte hartu dut eta babestu dut Korrika.

- Nola ikusten duzu Korrika gaur egun?

- Korrika AEK-rentzat da akuilu ikaragarria. Nik azkenekoan gogoan dut oraindik jendearen erantzuna eta erakarpen ikaragarria. Bultzada ikaragarria dauka oraindik ere. Eta jendearen inplikazioa ikusten da partaidetzan, herriz herri eta gero bukaeran. Ikusten da ere aldi batetik bestera handitzen ari dela.

Jendeak ematen dio sekulako bultzada AEK-ri eta euskarari, noski, baina baita euskal kulturari ere. Egiten diren beste hainbat ekintza bezala hau ere egiten jarraitu behar da. Hain du parte-hartze zabala, hain ideologikoki zabala, egiten jarraitu behar dela.

Korrika peto zaharrenaren lehiaketa

Aurten, lehen aldiz, Korrikako peto zaharrenaren lehiaketa jarri genuen martxan, Korrika hasi aurretik. Irabazlea HH4C gelako Uxue Loidi Aranburu eta bere aitona Juanxo Aranburu izan ziren. Saria, berriz, honakoa: martxoaren 22an, Korrika Txikian, HH4 urteko lekukoa eraman zuten elkarrekin.

1995. urtekoa zen petoa, 9. Korrikakoa. Eskerrik asko denagatik eta zorionak!

GURE HERRIKO TXOKO LILURAGARRI HORIETAKO BAT: **EGIAR**

Egunero bezala, gaur ere banoa haur eskolara, baina gaur bada zerbait ezberdina: eguzkitako krema eman dugu aurpegian eta txapela ere jantzarazi dit amak. Badakit autobus handian sartu eta mendira goazela. Oraindik ez dakit zein koloretako autobusa izango den, ordea! Eta mendiak Egiar edo honelako zerbait izena omen du!

Urmendira iritsi eta beti bezala, irribarretsu eta gertu agurtu nau Ainhoak. Zein baliotsu sentitu naizen, niri bakarrik egindako harrera goxo horrekin!

Baina bada zerbait ezberdina gaur; zirrara nabari da, ilusioa, urduritasuna, gogoa, poza... "autobus handian goaz!".

Ainhoak motxila hartu, eta bertan sartu ditu, bananak, komuneko papera, galtza pare bat... Hau ere berria! Eguzkitako txapela guztiok daramagu! Nik gorria, Ametsek berdea... Oso ongi dakit neurea zein den.

Halako batean abiatu gara autobusa hartzera. Beltza da autobusa. Beltza eta oso handia! Ani eta biok eskua elkarri emanda joan gara, bata bestearen ondoan. Bidean ardiak ikusi ditugu, astoa, autoak... Dena da txikiagoa autobus barrutik.

Iritsi garenean, autobusetik jaitsi eta tipi-tapa hasi gara. Bagoaz aurrera. Makila luze-luzeak, hostoak, harriak... Denetarik dago: harri handi-handiak ere bai. Zaldiak ere ikusi ditugu, lepoko eta guzti. Musika kaskoak ote ziren galdetu du Nahiak.

Harri handi-handi batzuk dauden toki batera iritsi gara. Gogoratzen zail xamarra egiten zaidan izenez deitu ditu Begok (mairu-baratzeak). Etxea izan dira





guretzako, etxeetako ateak, leihoak, salto egiteko tranpolinak... Urmendin daudenak gogorazi dizkirate momentu batean.

Hamaiketako goxoa ere egin dugu, belarretan eserita, ura edan...

Indarrak hartu eta tontorrera igo gara. Ufa! A ze aldapa. Atzeraka eroriko nintzela uste nuen momentu batean, baina iritsi gara! Eta zein txiki ikusten zen hor goitik dena! Txiki-txiki! Bueltan jaistea errazagoa izan da. Eta azkarragoa.

Gu bezala, txoriak ere horra joaten dira antza jolastera! Zenbat txori zuhaitzetan. Zuhaitzak izango dira beraien etxeak segur aski! Bai!!! Haiek ere pozik daude, gu bezala, kantu kantari.

Oooooo... Eta ze pena, buelta egin behar genuela esan dutenean. Ez da posible. Dagoeneko? Baina tira, berriz autobusean ibili behar horrek animatu nau!

Eta oraingoan bakar-bakarrik igo naiz autobus barrura, eskaileratan gora. Ez dut laguntzarik behar izan.

Poltsikoan makilatxo bat eta harri bat sartu ditut etxera eramateko, eta ama etorri denean, lehenengo gauza makila eta harria erakutsi dizkiot. Irribarre egin diogu elkarri!

ESPAZIOAREN NOLAKOTASUNAZ

Artikulu hau ia oso-osorik iazko Oiartzungo urtekarian publikatu genuen arren, egokia iruditu zaigu ***Txinpart!***-en ere lekua ematea. Izan ere, Haur Hezkuntzako etapakoek urtero egiten dugun bateratze edo formazio saioan gai horixe izan dugu hizpide: **espazioa ere hezigarria dela**. 3-6 urte bitarteko irakasleak gonbidatu genituen gurera eta arratsalde atsegina pasatu genuen teoriak harago, Urmendiko espazioak ikusten.

Izan ere, pasa den urtean espazioen nolakotasunaren gaira hurbilketa lotsatia egin genuen. Ikasturtean zehar sarreran dugun plazari tarteak eskaini genion, espazio bizigarriagoa eta erakargarriagoa egin asmoz eta bilgune goxoak, oihalak, argizatutako txokoak eta ipuinak lasai ikusteko eremua prestatu dugu. Ikasturte honetan ariketa sakonagoei heldu diegu, eta bakarka nahiz taldean, gure espazioen inguruan hausnartzeko denbora hartu dugu. Altzari motak eta horien mugikortasun aukerak aztertu, espazioek sentiarazten digutenaz kontziente egin: usainak, hoztasuna agian edo alderantziz, goxotasuna, ordena, nahasmena, deserosotasuna, bertan egoteko gonbita, haurren arteko harremanak eta jolas motak behatu espazio horietan, espazioek eskolako bizitzaz kontatzen digutenaz jabetu, hezitzaileen hitz tonuak, mugimenduak eta abarrek haurrengan eragin dezaketenaz pentsatu...

Espazioaren nolakotasuna diogunean ari gara altzarien kokapenaz, estetikaz, materiala aurkezteko moduez, haien poli-sentsorialitateaz, argiaren presentziak, ordenaz, paretetako koloreez, harmoniaz, sentsibilitateaz... beste modu batera esanda, espazioak kontatzen duen guztiaz ari gara hizketan.


Izan ere, espazioak asko du esateko eta asko du erakusteko. Espazioaren nolakotasuna hezitzailea da arrunt, **espazioa itxuratzeko eta antolatze moduak hezi egiten du**. Zentzumenen bitartez jasotako informazio zaindua eta soila, gehiegizko estimulurik ez izatea, gehiegikeriarik gabeko eskaintzak ekartzen duen sormena... Horrek guztiak eragina du haurren

ekintzan, jolasean eta erlazionatzeko moduan. Dagian Maltempo pedagogoak esaten zuen edertasunean hezteak zela atentzioa eta hausnarketa inguruko gauza txikietan eta handietan jartzea. Horregatik, edertasunean ez da museoetan bakarrik hezten, gure hezkuntza-lekuetan proiektatzen dugun guztian ere hezten da. Edertasuna naturarekin dugun harremanean dago, eta eguneroko espazioetan. Edertasuna eta ekintza oso lotuta daude, eta Platonek ere horixe defendatzen zuen, zerbait ederraren aurrean bat ez dela modu pasiboan eta kontsumitzailean aritzen, alderantziz, modu aktiboan eta sortzailean jarduten dugula.

Nabarmena da haurren mundua kolorez betetzen tematuta ibili garela helduok aspalditik, jostailu eta altzari koloretsuez beteriko espazioak eta jolaslekuak propio erosiz eta sortuz. **Bitxia da guretzako nahi ez genituzkeen tonu eta espazio antolaketa nekagarriak inongo erreparorik gabe prestatzen dizkiegula haur txikiei**. Maiz egozten zaigu helduoi gure ikuspegitik egiten ditugula gauzak, haurren eta gaztetxoek beharrik kontuan hartu gabe, eta hain justu, espazioetan estetika berezitua sortzen dugu haientzat, gure estetika irizpideetatik erabat ezberdina.

Era berean, ukalezina da joera batetik beste muturrera pasatzeko zaletasuna ere badugula, eta beraz, ez gaitzeen erori haien artean berdintsu diren gela aseptiko, minimalista eta kolorerik gabekoak antolatzen. Bilatzen duguna ez da aldaketa estetiko hutsa, hasiera batean positiboa eta baita beharrezkoa izanik ere, ez delako nahikoa. **Espazioetan bizitzeko moduak zailak egitea da helburua**. Andreo Leonek hala dio: paretetan gauza ederrak zintzilikatzeaz harago, espazioak estetikoki berrikusi behar dira gure kulturarekin eta kultura horrek behar duen hezkuntza proposamenarekin elkarriketa eginez.





HATZAK BETE LAN

HH3

ZER DA ELKAR ZAINITZA?


Aurten HH3 urtekoak bizikidetzako **elkar zaintza** printzipioaren inguruan aritu gara. Egunerokotasunean oso presente dugun balioa da; etengabe lagunartean eta gelako dinamiketan zaintza hori kontuan izaten dugulako.

Haurrei, **zer da elkar zaintza?** galdera luzatu diegu.

Hauek beraiek egindako ekarpenak:

- "Ona da!".
- "Elkar maitatzea".
- "Elkarri zaintzea".
- "Goxo ibili eta ez diogu mina egiten (ez bultza, ez koska, ez iletik tira...)".
- "Muxuak eman".
- "Besarkadak eman".
- "Txoka eman".
- "Lagunak min hartzen duenean, laguntza eskatu irakasleari".
- "Mina hartzean, lagunari lagundu".
- "Lagunak gonbidatzea jolastera".

Egunerokotasunean etengabe aritzen gara gaiaren inguruan. Baina, praktikara eramateko eta printzipioa indartzeko talde dinamikak eta jolasak eraman ditugu aurrera urtean zehar. Esaterako, besarkada musikatuak, aulki joko kooperatiboa eta paraxutarekin jolas kooperatiboak.



HH4


ESKUZABALTASUNA

Txirristan gora iristen laguntzeko bultzadaxoa eskaintzea; min hartu duenari laguntzeko irakasleari abisatzera joatea; kideak erabili dituen egur blokeak biltzen eta jasotzen hastea; ipuina ikusterakoan beldurra sentitzen duenari babesa ematea; "R" letra nola idazten den asmatzen ez duenari arbel txikian "R" letra nola idazten den azaltzen saiatzea; baloi gorriaren gainean zutik jarri behar duen "zirkuko funanbulistari" baloia eustea; ibilaldietan azkenak doazenak animatzeko abestea; koskan salto egitera ausartzen ez denari eskua luzatzea...

Haurrek euren ontasuna eskaintzen diete kideei beharra dagoenean, egoerak horrela eskatzen duenean, naturaltasunetik, errailetatik, gorputzetik, barrutik kanpora irteten den indar bat balitz bezala.

Helduok, egon gaitez begira, adi, egoerak identifikatzeko eta goraipatzeko: *Zorionak! Egin duzun keinu horrekin eskuzabaltasunez jokatu duzu! Gora zu!*

Honela, gure ispiluekin, euren **eskuzabaltasuna** handitzen, handitzen eta handitzen joango da... Izan gaitezen eredu, eskain dezagun nahi dugulako, gogoia dugulako, eskaintzeak ematen duen plazera sentitzeko, trukean ezer espero izan gabe.




HH5

PAREKIDETASUNA

Gure eguneroko jardunean, ikasleak parekidetasuneko baloreetan hezteko helburu. Argi dugu, **parekidetasuna** ikasi eta eraiki egiten dela. Hori dela eta, hezkuntza parekidea eraikitzen saiatzen ari gara, horretarako tresna eta baliabideak eskainiz. Ahalduntze indibiduala eta kolektiboa sustatuz, berdinen arteko estereotipoak gainditzen saiatzen gara.

Aipatutakoa gelara ekarri, gorputza gaia landu dugun honetan, bizikidetzaren (parekidetasuna barne) inguruan sortzen zaizkien hiru egoera aurkeztu dizkiegu ikasleei. Egoera horien inguruan norberak hausnartzeko, taldean partekatze eta ondorioak ateratzeko aukera izan dute. Egindako lanketan oinarrituta, taldean ipuin bat sortu dute, beraiek bai idazle bai ilustratzaile izanik.



LH1

MAKINAK SORTU DITUGU, ENPATIA OINARRI



Kaixo lagunak!

LH1en landu dugun bosgarren gaia *Hau da nire makina* izan da eta gure erronka makina sinple bat sortzea izan da. Gaiari buruz gehiago ikasteko Fanderiako errotara ibilaldia egin genuen. Bertan, Margik Fanderiako errotaren historia kontatu zigun eta hainbat makina sinple ikusteko eta probatzeko aukera eman zigun: katapultak, haize errota txikiak, ur errotak, jostailuzko engranajeak...

Horrez gain, errota martxan jarri zuen eta bere funtzionamendua azaldu zigun: errotan ura biltzeko ateak nola funtzionatzen duten, tamaina ezberdinetako eta elkar lotutako engranajeak indar gutxi eginda nola mugitzen diren, arto aleetatik irina nola sortzen den...

Egun ederra pasatu genuen eguraldiaz disfrutatuz: natura behatu, elkarrekin jolastu, elkar zaindu, azalpenak adi-adi entzun...

Hurrengo urratsa ikastolako lana izan da. Zeregin honetan ere, ikasturte honetako mailako printzipioa gogoan izan dugu eta enpatiaz aritu gara erronka gauzatzen: bakoitzak bere proposamena pentsatu du, taldean aurkeztu du, elkar entzun dugu, egokiena zein den adostu dugu eta adostutakoa gauzatu dugu, guztion ongizatea zainduz.

Begira nolako makinak sortu ditugun!

LH2

IZAN GAITEZEN...

Anitza da pertsona, anitza taldea, anitza da komunitatea eta anitza mundua. Horren lanketan aritu gara etengabe LH2. mailan; garenetik hasi eta izan nahi dugun horretara bidean.

Horretarako *Igel marroitxo*-ren ipuina landu dugu. Taldetik bereizi izateagatik nola sentitzen garen ondorioztatu, eta ezberdina izatea aberastasun izugarria dela ulertzera iritsi gara.

Beraz, izan gaitezen ezberdin, izan bereizgarri!

Horrelaxe maitatuko gaituzte, horrelaxe maitatuko zaituztegu!

LH2. mailako igel mota guztien partez.



LH3

GERTUTASUNA ETA SAMURTASUNA

Alaine Agirre Garmendia bermeotarra ikastolara etorri zen martxoan gurekin solasaldi literario bat izatera. Berak idatzitako liburu artean ibili ginen bera etorri aurreko asteetan: *Martin, Letra txarra daukat, eta zer?, Txokolatezkoa izan nahi nuke, Bihotza lo daukat, eta zer?, Nora joan da aitona?, Amaren bila, Badauzkat nire zulo txoan...*

Galdera asko luzatu genizkion, eta berak maitekiro erantzun. Idazle betaurrekoak jantzi genituen, gauzei beste era batera begiratzeko aholkuak ere jaso genituen... Benetan ordu interesgarria igaro genuen Alainerekin. Gutxitan sentitu dugu halako **gertutasuna eta samurtasuna** ordura arte ezagutzen ez genuen sortzaile baten partetik.



Hitzak idazten hasi omen zen Alaine. Sei bat urterekin, esaldi bat idazteko aukera luzatu zien irakasleak. Eta, esaldi bakarra ez, sei idatzi zituela aitortu digu, istorio txiki bat sortuz. Hor hasi omen zen bere idazle senari aukera ematen. Gezurrak erabiltzeko baimen idatzi bat ere bai omen du. Gezurretatik istorioak sor ditzakegula xuxurlatu zigun... *Hau ez da zoo bat* liburua irakurtzeko proposamena ere egin zigun; nork ez du maskota bat nahi etxean? Gehienok besoa altxa genuen bere esaldia gure eginez.

A zer plazera Alaine entzutea! Zeinen gustura egon ginen berarekin hizketan!



LH4

ARDURAZ JOKATU ETA EGINDAKOAREN ONDORIOAK ONARTZEA

Aurten LH4. mailan **erantzukizuna** printzipioa landu dugu ikasturtean zehar. Printzipio honen lanketari Bizikidetza Egunean eman genion hasiera, eta ikasitakoarekin dekalogo bat osatu dugu denon artean.

10

ERANTZUKIZUNAREN DEKALOGOA

1. Gure betebeharrak arduraz betetzea.
2. Gure ekintzen erantzuleak gara.
3. Konfiantzazko pertsonak izan, erabakiak hartzeko.
4. Harremanetan zaintza lantzea eta justua izatea.
5. Erantzukizuna hasten da gure betebeharrak betetzean.
6. Nire erantzukizuna ongi betetzeak besteei konfiantza ematen die: etxean, kalean, ikastolan...
7. Erantzukizunez jokatzen badugu, gure buruarekin ongi sentitzen gara, baita besteok gurekin ere.
8. Zerbait egiten digutenean, jakin nola erantzun.
9. Behar duenari entzutea eta entzuna sentitzea.
10. Betebeharrak ongi betetzean ongi sentitzen naiz eta barrutik handitu egiten naiz.



LH5

ELKARKIDETZA

Horixe da Haurtzaroko Bizikidetza proiektuaren barrenean landu dugun atala: **ekarkidetza**.

Horren barrenean ere koka genezake aurreko martxoan LH5. mailakook egin genuen egunpasa Altsasun. Arikala proiektuaren lanketako azken txapela zen txango hau. Euskarazko hainbat esamolde klasetan eta jolasetan landu ondoren, beste ikasleetako kideekin Altsasun topatu, mila joko bitartez esamoldeak praktikatu eta Euskal Herriko txoko desberdinetatik etorritako 200 ikasle ingururekin, **elkarkidetzan**, egun ederra pasatu genuen.

Izan ere, Haurtzarokook ere arikalatarrak gara!
Egurra!



Bideoa

<https://youtu.be/pc2JZ2uzkQQ>



06. HATZAK BETE LAN




LH6

ELKARTASUN SOLIDARIOA

Aurtengo ikasturtean, bizikidetz osasuntsu baterako portaera egokien lanketaren baitan ditugun 14 printzipioetatik **elkartasun solidarioa** izan dugu ardatz. Trukean jasotzeko asmorik gabe behar dutenei laguntzearen balioaz jabetzen eta hausnartzen aritu gara. Balio hau ekintza eta irakasgai desberdinen bidez jorratu dugu, baita *Hautzaro Kantari* proiektuarekin lotu ere.

Kanpaina solidarioa Beskoitzeko ikastolari laguntzeko erabili dugu: eltzetsuak jarri ditugu gela guztietan, eskulanak mailakide guztien artean egin ditugu, azoka antolatu dugu, errifak prestatu eta saldu... eta Iparraldean euskarak duen egoeraren berri hurbilagotik izan dugu. Gure artean dagoen muga zubiak eraikitzeke aukera eskaini digu eta inguruan laguntza handia behar duten egoerak ere badaudela konturatu gara, urruti dauden horiena ahaztu gabe.

Honekin guztiarekin bat eginez, azken hiruhileko kanta gisa *Itzulera* aukeratu dugu. Zetak eta Erramun Martikorenak 2022ko Herri Urratsen alde egindako abestia da, Euskal Herriaren ereserki



bihurtu zaiguna. Ukelelearekin jotzen trebatu gara eta denon artean abestu dugu. Egindakoaren emaitza honako bideo honetan jaso dugu:



Bideoa:

<https://youtu.be/WS1DESRxv1I>

Zuei ere inguruan ditugun eta urrutian baino gertu sentitzen ditugun egoera gatazkatsuetan edo gogorretan daudenei laguntzera animatzen zaituztegu, elkarrekin lan eginez, elkar lagunduz eta elkar ulertuz lortuko baitugu mundua hobea izan dadin.



DBH1

TRUKEAREN ABERASTASUNA

Aste Santuko oporren aurretik DBH1. mailakoek trukea izan genuen. Larzabalen izan ginen hiru egunez. Joan aurretik Iparraldekoen gutunak jaso genituen eta bertan ikusi genuen hizkuntza zein aberatsa den, gure euskalkiarekin aldeak dituela antzeman genuen: "untsa", "ttipia", "gasna"... Aldi berean, urduritasuna eta ezinegona sentitzen hasi ginen esperientzia horren aurrean.

Iritsi zen haiekin elkartzeko eguna. Hiru egunez ekintza ezberdinak egin genituen: jolasak elkar ezagutzeko, irteerak iparraldeko txokoak ezagutzeko, familietan egonaldia bertako ohiturak ezagutzeko...

Esperientzia zehar bizitako sentipenak hainbat izan ziren: beldurra, lasaitasuna, lotsa, dibertsioa... Baina, azken finean, oroitzapen ahaztezin eta izugarria izan zen. Zein garrantzitsua den bizikidetzak: borondateak, aniztasunak eta eskuzabaltasunak lagundu digute trukeaz gozatzen.

Ekainean trukearen bigarren txanda izan dugu, baina ezin izan dugu jaso zenbaki honetan, dagoeneko inprentan zegoelako haiek hona etorri zirenerako. *Txinpart!* hau eskutan duzuenarako Larzabaleko ikasleak gure etxeetan egonak izango dira, eta ederki pasatu izango ditugu ekainaren 17tik 19rako egunak, haiekin gurean.

06. HATZAK BETE LAN



DBH2

AZTERKETAK EUSKARAZ

Korrika dugu euskal harrotasuna astintzen duen ekintzarik handienetako bat. Aurtengo honetan, *Azterketak euskaraz* ekimeneko ikasleak nahiz gurasoak omendu ditutze; eta DBH2. mailako ikasleek, *Oihaletxea* dokumentalaren bidez, Iparraldeko ikasleek azterketak euskaraz egiteko eskubidea aldarrikatzeko egiten ari diren ekimenen berri izan dugu.

Beraien borrokarekin bat egiteko eta gure elkartasuna erakusteko, Korrikan *Azterketak euskaraz* aldarrikapena egiteaz gain, elkartasun gutunak, mezuak eta bertsoak bidali dizkiegu.

Guretzako ez dago dudarik, azterketak euskaraz egiteko eskubidea dute ikasleek eta beren eskubideak errespetatuak izan arte, **beraiekin batera, borrokan segituko dugu.**



Bideoa:

<https://youtu.be/xZ74BQxkIG8>

DBH2

HAIZEA BEZALA

DBH2ko ikasleok dantza bat egin behar genuen, Gorputz Hezkuntzako proiekturako. Dantzak hainbat baldintza bete behar zituen: bi akroesport figura egitea, euskal pausoak sartzea, dantza modernoko pausoak sartzea, 6-8 kidekoak izatea...

Hori jakinda, gure dantza egiteko eta sortzeko ideiak pentsatzen hasi ginen. Erabaki genuen abestirik aproposena, erritmo eta estilo aldetik, *Haizeak bizirauten* zela, gainera, denon gustukoa zen. Malakias taldearena da eta 2022an kaleratu zen. Abestiak esaten dituen hitzekin dantza sortzen hasi ginen, eta hainbat esaldirekin jolasean, dantza osatu dugu.

Gure dantzak istorio bat kontatzen du. Duela urte asko neska talde bat elkartu zen eta plazan musika bat entzun, eta dantzatzen hasi zen. Hori gure dantzaren hasieran ikus daiteke. Gero neska talde hau elkar ezagutzen hasi zen, eta hortik datoz akroesport-eko figurak. Badira, tartean, euskal pausoak, neska horiek Euskal Herrikoak direlako, baita pauso modernoak ere, dantza zaharren eta modernoaren nahasketa bat egin nahi izan dutelako.

Pausoei begira, zaharrak eta berriak erabili ditugu, izan ere, gure istorioarekin lotzeko, garai batekoak oraingoekin lotzea behar-beharrezkoa da. Pauso zaharrei begira, zehazki, arin-arineko pauso bat, euskal dantzako kriskitinak eta euskal dantzako tijeretak gehitu ditugu. Eta azkenik, gu Oiartzungoak izanik, lhotetako dantzaren zati bat, zehazki, Oiartzungo

sorginek dantzatzen dutena sartu dugu. Pauso berrien artean, txaloak, bueltak, saltoak eta kaxak sartu ditugu. Horrez gain, eskuak biribiletan mugitu ditugu.

Gainera, 3 akroesport figura daude: batetik, piramideak; bestetik, bi pertsona lurrean etzanda eta beste bat belaunaren goian; eta azkenik, bi pertsona belaunetan ondoan eta bat goian.

Janzkerari dagokionez, baserritar jantziak erabili ditugu oinarri modura. Hemengo tradizioaz gogoratuz eta istorioarekin bat eginez, Euskal Herriko identitate zeinua moduan, txapela eta zapi urdin-laukiduna erabili ditugu oinarri beltzaren gainean.

Eta, hemen, emaitza!



Bideoa:

<https://youtu.be/6XioPau3cASU>

Dantzaren egileak, Tatiana Yahoska Melgara Lopez, Mireia Sagarra Martin, Naroa Lopez Oiartzabal, Arane Susperregi Bilbao, Nahia Sarabia Romero eta Janire Ayerdi Suarez izan gara.


DBH3 URREZKO ZENBAKIA & FIBONACCIREN SEGIDA

Elaia Rio, Anastasia Harkusha, Enara Bereau eta Unai Gil



ZER DA URREZKO ZENBAKIA?
ZERGATIK DA EDERTASUNAREN EREDU?
ZER LOTURA DU FIBONACCIREN
SEGIDAREKIN? ZER EZBERDINTASUN
DAGO FIBONACCIREN ETA DURERONEN
ESPIRALEN ARTEAN? JAKIN-MINA
BADUZU, IRAKUR ITZAZU ORRI HAUEK.
MATEMATIKARI BURUZKO ALDERDI
GARRANTZITSU HONI BURUZ GEHIAGO
JAKIN NAHI?

• IZAR PENTAGONALEAN



Urrezko zenbakia izar honen segmentuen artean ikus dezakegu. Bi segmenturen arteko erlazioa adierazten du, bata bestearekin zatitzean urrezko zenbakia sortzen delako. Adibidez, AC segmentua AB segmentuarekin zatitzean urrezko zenbakia lortzen da.

• ADIERAZPENA



Urrezko zenbakia artean erabili izan da, adibidez, *Vitruvioren Gizona* artelanean, Atenaseko Partenoiko sabaia eta zutabeen erlazioan, kreditu-txarteletan... Urrezko zenbakia kreditu-txarteletan ageri da haien zabalera luzerarekin zatitzean.




**URREZKO ZENBAKIA
ETA PROPORTZIOA,
EDERTASUNAREN ADIBIDE**

• ZER DA?

Urrezko zenbakia bi segmenturen arteko erlazioa adierazten duen zenbakia da. Zenbaki hau ϕ (phi) letra grekoarekin adierazten da, hau da, 1,61803...



• ARTEAREKIKO LOTURA



Proportzio hori dela eta, urrezko zenbakia, Leonardo Da Vinci-ren "*Vitruvioren gizona*" marrazkiarekin lotzen da. Horrez gain, Atenaseko Partenoiko sabaia eta zutabeen arteko erlazioarekin


eta kreditu- txartelen artekoarekin ere bai. Horien itxuran eragiten dute urrezko zenbakiaren laukiek, horregatik lotu ohi da artearekin, arkitekturarekin eta literaturarekin.

FIBONACCIREN SEGIDAREKIN DANTZAN

• ZER DA?

Fibonacciren espirala izen bereko laukizuzenetan oinarritzen da. Espiral hori irudikatzeko, nahikoa da Fibonacciren laukizuzenak irudikatzea eta irudikapenean baliatzen diren karratuen aurkako erpinak zirkunferentzia-arkuekin lotzea. Prozesu hori hobeto ikusten da honako irudi honetan:

• FIBONACCIREN SEGIDAREN LEHEN GAIK




1; 1; 2; 3; 5; 8; 13; 21; 34; 55;
89; 144; 233; 377; 610; 987;
1597; 2584; 4181; 6765...

Fibonacciren segida
lortzeko, 1, 1 gaitatiki


abiatuz, segidaren edozein gai lortzeko aurreko biak batu behar dira.

• DUREROREN ESPIRALA

Dureroren espirala, berriz, urrezko laukizuzen batetik abiatuz eta antzeko prozesua aplikatuz eraikitzen da. Espiral hori erlazionatuta dago naturan hainbatetan gertatzen diren etengabeko hazkuntza- prozesuekin: Moluskuen oskolak, ugaztunen adarrak...



• LEONARDO DA VINCIREN GIOCONDA



Irudi honetan dauden zenbakiak Pi zenbakiaren antzekoak dira. Arte lan hau, Gioconda, "Mona Lisa" izenez ere ezaguna, Leonardo Da Vinci toskanarraren margolan bat da, XVI. mendearen hasierakoa. Leonardoren margolan garrantzitsuenetan azkenekoa da.

Leonardo Da Vinci (Leonardo di ser Piero Da Vinci 1452ko apirilak 15-1519ko maiatzak 2) Italiako Pizkunde Garaiko polimata florentziarra izan zen.

DBH4

Euskara

EUSKALDUN (IN)KONTZIENTEA

Zer da euskaldun izatea? Benetan badakigu gure hizkuntzak zein garrantzi duen errealitatean? Gure bizitzetan?

Mendeetan zehar, euskara zapaldua eta marjinatua izan da, eta zoritxarrez, egoera ez da asko hobetu. Euskaldunok gure nortasuna eta kultura indartzeko, egunero lana egin behar dugu, kanpo-eragileak diren edo hizkuntza zapaltzaileak diren gaztelania eta frantsesa, beti ate-joka ditugu eta. Egoera honen aurrean, euskaldunak bi multzotan sailka ditzakegu: alde batetik, euskaldun inkontzienteak eta, bestetik, euskaldun kontzienteak.

Lehen multzoak, ez du ulertzen transmisio-etenaren garrantzia zein kaltegarria izan daitekeen; ez du ulertzen euskara beharrean gaztelania edo beste hizkuntza bat aukeratzea zein arriskutsua izan daitekeen gure hizkuntzaren biziraupenean. Eta hori, benetan oso larria da, esan bezala, transmisio-etenak kulturaren etena suposatzen baitu, eta, euskal tradizioa, musika, eta horrelakoak atzean uzten baititu.

Bestalde, horren aurrean, zorionez, bada beste talde bat: euskaldun kontzienteena. Talde honek gure hizkuntzak bizitzeko eskubidea duela ulertzen du eta garrantzia ematen dio. Horregatik, horietako asko eta asko gure hizkuntzaren aldeko ekintzaileak dira/gara. Antolatzen diren ekintzek borrokan jarraitzeko indarra ematen digute. Horren adibide gisa jar daiteke Ipar Euskal Herriko borroka. Bertan, gazteek ez dute baxoa (Hego Euskal Herrian selektibitatea litzatekeena) euskaraz egiteko aukerarik, Frantziaren menpe baitaude. Hori ikusita, eta Seaskako Ikastoletako ikasleak ados ez zeudenez, baxoko probetako bat euskaraz egitea erabaki zuten. Horren bidez, haien desadostasuna adierazi, eta eguneroko borrokan lagundu zuten; euskararen normalizazioaren alde zerbait lortzeko urratsa eginez.

Horrekin guztiarekin, esan nahi dudana da benetan garrantzitsua dela norberak gure hizkuntzaren egoerari buruzko hausnarketa egitea, baita ekinean daudenei aitortza egitea, babesa ematea eta haiekin bat egitea ere.

Egoera honen aurrean egin daitekeena norberaren esku dago: ni zerbait egiteko prest nago. Eta, zu? Egin dezagun elkarrekin!

Aroa Guridi Soliño
DBH4ko ikaslea

EMAKUME ZIENTZIALARIAK ITZALETIK ARGIRA!

DBH4. mailako Matematika Lantegia arloan Emakume Zientzialarien Egunari (otsailak 14) eta genero berdintasunari keinu eginez, honako jolasak prestatu genituen adin guztietarako. Pentsamendu konputazionala eta emakume zientzialarien biografiak uztartuz, hainbat programa prestatu genituen matematikarekin modu dibertigarrian gozatzeko eta ikasteko.

Batuketekin, kenketekin eta biderketekin norgehiagokan aritzeaz gain, jolas hauetan hainbat emakume zientzialariren bizitzaren eta ekarpenen inguruko informazioa bildu ahal izango duzu.

15 emakume zientzialarirekin jolasean aritzeko aukera duzu jarraian, ezagutzen al duzu baten bat? Hautatu bat eta klikatu izenburuan jolastu ahal izateko.

Ea gustuko dituzun gure jolasak!



ÉMILIE DU CHÂTELETEKIN

ETORRI ZAITEZ NIREKIN JOLASTERA!

Matematikaz eta nire historiari buruz ikasteko aukera paregabea da!

Bi jolas egiteko aukera izango duzu. Batetik, gehiketak praktikatzeko. Nik, eragiketa batzuk proposatuko dizkizut, eta zuk ebatzi egin beharko dituzu, ahalik eta puntu gehien lortzeko. Bestetik, niri, Émilie du Châtelet buruz gehiago ikasiko duzu. Adibidez, zer ikasketa eta zer ikerketa egin ditudan.

Azalpena aurreratu ahal izateko, egin ezazu klik pantailaren edozein lekutan. Animatu zaitez! Ez galdu aukera!

(Gomendatutako adina: 9 eta 12 urte bitartekoentzat)



EMMY NOETHER

IKASI NAHI EMMY NOETHERREKIN?

Ezagutzen ahal duzu Emmy Noether matematikari eta zientzialaria? Guk gaurkoan Emmy Noetheri buruzko joko bat sortu dugu berari buruzko galderak erantzuteko eta berreketa praktikatzeko.

Alde batetik, Emmyren historiari buruzko informazioa emango dizugu eta informazio horrekin galderak erantzun beharko dituzu. Horrez gain, berreketa jolasean aritzeko aukera izango duzu.

Beraz, aukera oso polita iruditzen zaigu gure jokoak berreketa eta Emmy Noetheri buruz ikasteko, jolas moduan. Animatu!

(Gomendatutako adina: 12 urtetik gorakoentzat)



FELISA MARTIN

FELISA MARTINEKIN JOLASEAN

Gure jolasak biderketetan jolasteko eta gure zientzialari-meteorologo Felisa Martini buruzko informazioa ezagutzeko aukera ematen du. Jolasaren protagonista Felisa Martin da. Hasieran, aurkezpen bat egiten du bere buruaz, eta gero bi aukera eskaintzen ditu: lehenengoa bere historia ezagutzeko eta, bigarrena biderketa jolasean ibiltzeko.

Bere istorioari buruzko eskaintza aukeratuz gero, bere bizitzaz gauza zehatzak kontatzen hasten da, adibidez, noiz jaio zen, non, zer eta non ikasi zuen...

Aldiz, bigarren eskaintza aukeratuz gero, biderketen jolas batera eramaten ditu. Biderketa horiek 1-10 taularainoko biderketak dira. Biderketa jolasa 10 biderketa erantzutean amaitzen da eta behin amaituz gero, berriro ematen ditu aukera jolasteko.

(Gomendatutako adina: 8 eta 14 urte bitartekoentzat)



SOPHIE GERMAIN

BIDERKETETAN MURGILDUZ!

Matematikari buruz gehiago jakin nahi? Eta matematikariei buruz?

Hauxe da zure aukera! Ni, Sophie Germain naiz, jolas honekin ongi lagunduko dizut hauei buruz gehiago jakiten. Horretarako nirekin 4ko taulako biderketak egiten ikasiko dugu. Eta zenbat eta puntu gehiago lortu, orduan eta gehiago ikasiko duzu. 10 puntu lortuko al dituzu?

Horrez gain, nitaz gehiago jakingo duzu! ANIMATU!

(Gomendatutako adina: 7 eta 10 urte bitartekoentzat)



GERTRUDIS DE LA FUENTE

HIRUKO TAULA GERTRUDISEKIN

Hala bada, hau da zure jokoak! Hemen Gertrudis de la Fuente emakume zientzialariaren bizitzaz ikasi ahal izango duzu eta berarekin hiruko taula ikasi. Botoi batean klik eginda, bere bizitzako atal garrantzitsuez hitz egingo dizut, eta bestean klik eginda, biderketen jokoak hasten da. Honetan hamar galdera izango dituzu hiruko taulan oinarrituta, eta helburua ahalik eta biderketa gehien asmatzea izango da.

Jolastera!



JANE GOODALL

JANE GOODALL EZAGUTZEN AL DUZU?

Gehiago jakin nahi al duzu berari buruz?

Joko honen bidez emakume zientzialari honen bizitza ikasiko duzu. Jaiotze data, jaioterria... Horrez gain, mundura ekarri dituen bere ekarpenak ezagutuko dituzu, baita nola jarraitu duten gaur egun arte ere.

Jane Goodall alde batera utzita, zure alde matematikaria atera dezakezu. Batuketetan zer moduz moldatzen zara? Lortuko al dituzu 10 puntuak? Gure jokoan ikusiko duzu. Ea nola moldatzen zaren!

(Gomendatutako adina: 5 eta 9 urte bitartekoentzat)



**ADA
LOVELACE**

GOAZEN MATEMATIKARIEI BURUZ GEHIAGO IKASTERA!

Gure jolasa Ada Lovelace matematikariak aurkeztu du. Hasieran bi aukera uzten ditu: Ada Lovelaceri buruz gehiago ikas dezakezu eta horri buruz galderak erantzun ditzakezu; edo 1etik 10erako kenketak egin ditzakezu. Guztira sei galdera egiten ditu, eta bukaeran zure emaitza ikus dezakezu.

Amaierara iristean, berriro jolas zaitezke, edo beste aukera egin dezakezu.

Jarri martxan burua kenketak errepasatzeko, eta saiatu denak asmatzen!



**MARIA
ANDRESA
CASAMAYOR**

MARIA ANDRESA CASAMAYOR BIDERKETAREN JOLASA

Gure jokoa oso aproposa da 7ko biderketak lantzeko. 10 biderketa egingo dituzu, eta ondo erantzuten badituzu puntuak irabaziko dituzu. 5 galdera ongi erantzuten badituzu, 5 puntu lortuko dituzu. 10 galdera ongi erantzutean, 10 puntu lortuko dituzu, bikain!

Horrez gain, matematikari honen bizitzaz jakin ahalko duzu, egin dituen sorkuntzak, bere bizitzan zehar ikasi duena, etab. Anima zaitez joko honetan ibiltzera!



**MARGARITA
SALAS**

MARGARITA SALASEKIN IKASTEN

Margarita Salas naiz, nor naizen jakin nahi al duzu? Biderketen taulak errepasatu nahiko zenituzke nirekin?

Zorionekoa zu, jolas honen bitartez, nire historia jakiteko, eta nirekin batera bosteko taula ikasteko jolasa baituzu zure aurrean.

Lehenik, bi jolasen artean aukeratu behar duzu: matematika jolasa (5eko taulako biderketak) eta nire historia. Matematika jolasa aukeratzean, biderketak erantzun beharko dituzu. Ongi erantzutean puntu bat gehituko da. Helburua 10 puntu egitea da, eta hori lortzean berriro hasierara joaten da. Bertan, berriro biderketen jolasa edo nire historia aukera dezakezu.

Animatu ongi pasatzu asko ikastera!

(Gomendatutako adina: 7 eta 10 urte bitartekoentzat)



**MARY EVEREST
BOOLE**

KENKETEKIN JOLASEAN

A ze zortea zuena! Horretarako aukera paregabea ekarri dizuegu Cloek eta biok (Arai).

Gure jolasa "Kenketekin jolasean" da, bertan kenketak egiteko aukera izango duzue 30 puntu lortu arte (puntuak 5naka igotzen dira). Horrez gain matematikari bat ezagutzeko aukera ere izango duzue, zehazki, Mary Everest Boole.

Amaierara iristean berriro jolasteko aukera izango duzue, nekatu arte!

Entrenitzeko aukera ederra, ezta?

Ea matematikari buruz gehiago ikasten duzuen eta 30 puntuak azkar lortzen dituzuen, ziur gaude baietz!

Anima zaitezte, eta oso ongi pasatu!

(Gomendatutako adina: 6 eta 9 urte bitartekoentzat)




**FLORENCE
NIGHTINGALE**

ZIENTZIAREKIN BAT!

Matematikekin jolastu eta emakume zientzialari ikaragarri baten historia ezagutu nahi baduzu, jolas hau zuretzako da!

Hona sartzean, Florence Nightingalek oso dibertigarriak diren bi aukera ematen dizkizu: batetik, 6ko taula errepasatzeko aukera dago, ea zenbat egiten dituzun ongi! Eta bestetik, oso interesgarria den zientzialari honen historia kontatuko dizu.

Anima zaitez!



**HEDY
LAMARR**

AUSTRIAKO ZIENTZIALARIAREKIN JOLASEAN

Gure jolasak 8ko taulako biderketetan jolasteko eta gure zientzialariari Hedy Lamarr-i buruzko informazioa jakiteko aukera ematen ditu. Jolasaren protagonista Hedy Lamarr da.

Hasieran, aurkeztu bat egiten du bere burua aurkeztu eta jolasaren bi aukerak eskainiz. Batetik, aukera batean Hedy Lamarren biografia kontatuko dizu. Aldiz, biderketen jolasean atalean, biderketa batzuk erakutsiko ditu eta zuk ebatzi egin beharko dituzu. Kontuz, gaizki ebazten baduzu bizitza bat galduko duzu eta soilik 3 dituzu!

Anima zaitez gure jokoa jolastera, ikusiko dugu ea ez zaren traketsa hutsa!

(Gomendatutako adina: 8 eta 9 urte bitartekoentzat)



**GAETANA
AGNESI**

GURE BURUA DESAFIATUZ

Gure joko dibertigarria, bi aukera izango dituzu. Lehenak, Agnesiren historia ezagutzeko aukera emango dizu. Besteak, aldiz, matematikako biderketak errepasatzeko eta hobetzeko aukera emango dizu.

Jolasean, Agnesi izango duzu bidelagun, izan ere, behar duzunero, laguntzeko prest egongo da. Hasiera batean, sarrera emango dio jolasari, eta ondoren, bi aukeren aurkezpen laburra egingo dizu. Matematika jokoa eragiketa batean akats bat eginez gero, erantzun zuzena emango dizu Agnesik. Hori gutxi balitz, haren historian eta bizitzan murgiltzeko aukera emango dizu, informazio interesgarria azalduz.

Horregatik guztiatik, anima zaitez Agnesirekin jolastera!

(Gomendatutako adina: 11 eta 12 urte bitartekoentzat)



**CHIEN-SHIUNG
WU**

CHIEN-SHIUNG BOOM

Gure jokoa Chien-Shiung Wu-ri buruz gehiago ikasteko aukera izango duzu, baita matematikako biderketen arloaren inguruan gehiago ikasteko ere. Chien-Shiung Wu ikertzailearen inguruko informazioarekin, emakumeek zientzian eduki duten garrantziari buruz gehiago ikasteko aukera izango duzu eta, horrela, urteetan zehar zapalduak izan diren emakume garrantzitsu horiek mundura azaleratzeko lortuko dugu.

Matematikaren jolasarekin biderketetan sartuko gara, jolas honetan hiru bizitza izango dituzu eta minutu bat jolasteko, zure helburua ahalik eta puntu gehien lortzea izango da 3 bizitzak galdu gabe.

Animatu jolastera!

(Gomendatutako adina: 12 urtetik gorakoentzat)



**ROSALIND
FRANKLIN**

NIRE JOKOAK BI AUKERA EMANGO DIZKIZU

Aukera batean, nire historiari buruz gehiago ikasteko aukera edukiko duzu, bertan nire buruari buruzko informazioa eskainiko zaizu. Beste aukeran 1etik 10 bitarteko taulako biderketak egiteko aukera edukiko duzu, horrela biderketak ikasten lagunduko dizu jolasak.

Anima zaitez nirekin jolastera!


(Gomendatutako adina: 6 eta 9 urte bitartekoentzat)



IHOTEAK

INAUTERIAK

KORRIKA



IKASTOLA EGUNA





ESKUTTUN

Kaixo:

Aurten ere, urtero bezala, bagoaz DBH4. mailakoak ikastolatik, euskarari ahal izan duen guztia eman dion maila bat.

Ikastolan hasi ginenetik jaso dugu Eskuttunen besarkada. HH3. mailan sartu ginenean, Argitxoren paxintxiek gozatu zizkiguten ahoak, eta bere laguntzaileen ipuinek belarriak. Azken 4 urteetan guk zabaldu ditugu besoak, eta besarkatu euskararen mundura sartzen ari diren txiki guztiak.

Ostiraletan deskonektatzeko une bat aurkitu dugu Eskuttunen. Bazkaldu bitartean, edozeren inguruan hitz egiteko txoko bat izan da. Lehen genekiena baino



gehiago ikasi dugu euskararen egoeraren inguruan, baita hau aldatzeko gure hondar alea jar dezakegula ulertu ere.

Baina bidaia guztiak iristen dira beren amaierara, bide guztiek dute helmuga. Aurten guri dagokigu agur esatea. Hunkiturik agurtuko dugu ikastola; hunkiturik, baina irribarre batekin. Hori delako Eskuttun: irribarre bat, ahoan zapore ona uzten duen postrea, Korrikako abesti bat, besarkada beroena. Hemen abestutako abesti, egindako aurkezpen, ipuin kontaketa, kartel, eta kanpaina guztiak beti gure oroitzapenetan gordeko ditugula jakinik, lasai joan gaitezke.

Argi dugu ondoren datozenak guk bezainbeste maiteko dutela euskara, eta intentzio bera jarriko dutela talde honetan.

Euskarak hasi zuen mugimendu hau inork ez dezala geratu.

Agur bero bat Eskuttuni, ikastolari, mugimendu honi eta bide honetan gurekin egon diren bidelagunei.

Eskerrik asko denagatik,

DBH4ko ikasleak.

MAIETAN ETA HAINBAT
N BESTE GELAKOEN HARREMANEN
rela pertsona gehiago
dituzte. Oro lagungarria izango
lan egongo zaren hainbat elkartan.
RAKURTEEN DBH-erako oro lagungarria
duzu gaitik ulertzeko.
DU ETA MAITATU ZURE
NAK.
ESATUTA EDO ANTZEKO ZERBAT
TEEN DAZARA. TXOKO BERRIRA JOAN
utza lasaitasunaz, bideko duzu.
MENTUA GOZATU ETA AHATU ARAZAK.
NEKI ERRESPEITUZ TRATATU ARRETAN ENTZUN
A BAKITZAK BALIO DUENA ERAKUSTEKO AUKERA
HAN.
LKAR MAITATU ETA ELKARRAKIN ONGI
ASATZEN SAIAITU.
EZ EDUKI AURREIRITZIRIK INORREKIN (IKASKIDE,
GELAKIDE, MAILAKIDE, IKASTOLAKIDE...)
ZAINDU ALBORN DUZUN PERTSONA. LAGUN
ESKAINITZEN BEZALA ONARTUZ ETA

5.000

eurotik gora,
Beskoitzeren alde

Dakizuenez, LH6. mailako ikasleek hiru ekintza jarri zituzten martxan bigarren hiru hilekoan Beskoitzeko ikastola laguntzeko: eltzetsuak ikastolan, azoka solidarioa Korrika herritik pasatu zen egunean eta errifak.

Hiru ekimenekin **5.416,97 euro bildu dituzte** hara bidaltzeko. Laguntza izugarria izango da, ziur, ikastola eraiki ahal izateko.




Bideoa:
<https://youtu.be/Rn4xGaSOvIY>





LABURRAK



Gwisenirekin elkartasuna

Pasa den abenduan eta urtarrilean, Haurtzaro Ikastolak bultzatutako Gwiseniko diwan eskolarekin elkartasunezko ekimenari bukaera eman genion otsailean.

Haurtzaroko komunitatea osatzen dugun gurasoen, ikasleen eta langileen artean egindakoa handia izan da eta Breizh-ko gure lagunek, zinez eskertu dute.

Ekimena Karaez-Oiartzun Komitearekin eta AEKrekin batera gauzatu dugu. Eta guztion diru-ekarpenak eta laguntzak barne, **2.243€ lortu ditugu.** Oiartzungo Udalak ere egin du ekarpen ekonomikoa.

Baina dena ez da dirua izan, edo ez bakarrik. Gwiseniko diwanera postaz bidalitako kartelaren argazkia da hau. Gure frantseseko DBH2, 3 eta 4ko ikasleen animo hitzekin sinatuta.



Matematika lehiaketa 2024

Apirilaren 13an Udaberriko Matematika Lehiaketa ospatu zen Leioako unibertsitatean (Bizkaia).

Badira urte batzuk Haurtzaro Ikastolako ikasleek ekintza honetan parte hartzen dutela, eta aurten **DBHko 6** ikaslek izan zuten lehiaketa honen bigarren fasean parte hartzeko aukera: **DBH1eko Mikel Gajatek eta Alain Urangak, DBH3ko Urko Break eta Amaiur Ostolazak, DBH3ko Unai Gilek, eta DBH4ko Leire Suarezek.**

Diploma bana jasota, pozik itzuli ziren etxera.

Azkue sariak



Ongi egindako lanari, merezitako saria

Euskaltzaindiako Azkue sarietan A kategorian, honako sariak eskuratu dituzte gure ikasleek:

- **Narrazioan:**

1. saria Harriet Mitxelena Lekuonak (DBH2)
lortu du, *Horma* lanarekin.

- **Poesian:**

1. saria Intza Mitxelena Mendizabalek (DBH2)
eskuratu du, *Ispilua* lanarekin.
2. saria Liher Larrea Etxebestek (DBH1)
lortu du, *Maindire kuttuna* lanarekin.

Ohikoa bihurtu denez, lan gehien aurkeztzen duen ikastetxeari saria, beste behin, Haurtzaro Ikastolari eman digute. Saria lehenengoz 2018an banatu zuten eta orduraz geroztik, urtero Haurtzarok jaso du.



Guztira **180 lan**
inguru aurkeztu
ditu ikastolak.



08. LABURRAK

40. Lexoti Bertso Sariketa



LEXOTI

Ekainaren 6an, osteguna, Lexoti Bertso Txapelketa egin zuten.

Idatzizko lehiaketaren sariak banatu zituzten, batetik. Hona gure saridunak:

• LH6:

- Txapeldunordea: Unai Iturain.
- Txapelduna: Kattin Garai.

• DBH1

- Txapeldunordea: Manex Arabolaza.
- Txapelduna: Udane Bereau.

Oholtzara igo ziren denak euren bertso sarituak kantatzera.

Bestetik, bat-bateko saioa egin zuten. Bertan parte hartu zuten Bertso Eskolako LHko eta DBHko ikasleek, baita Egiaz Otegi eta Peru Alijostes ikasle ohiek eta Kattalin Arabolaza DBH3ko ikasleak gonbidatu berezi bezala.



Bideoa:

<https://youtu.be/zZptubgdOqg?feature=shared>

Haurtzarok Redadeg-en parte hartu du

Bourg-Blanc eskualdean eresia genuen, Haurtzaro Ikastolaren izenean, Redadeg-eko (Bretainiako "Korrikako") kilometroa, Gwisenitik Bresterako bidean. Maiatzaren 24tik 25erako gauean, larunbat goizeko 04:49ean, korri egingo genuen 2079. kilometrotik.

Bertan izan zen gure ordezkari Agustin Vital eta Diwaneko irakaslea den Goulc'hen, gure kilometroan korri egitera animatu ziren bertako hainbat ikaslerekin.

Han izan ziren Oiartzungo Udaleko hainbat ordezkari ere.



ESKOLAZ KANPOKOAK

HAURTZARO DANTZA TALDEAren emanaldi hunkigarrienetakoa

Haurtzaro Dantza Taldea ibilbide oparoa izan duen dantza taldea izan da. Aurrerantzean ere hala izan dadin, lanean jarraituko dugu Haurtzaro Ikastolako komunitate osoak.

Ikasturtero lanean aritzen dira dantzariak, monitorea, gurasoak, baita ikastolako langileak ere, Haurtzaro Dantza Taldeak egunerokoari eta dituen emanaldiei erantzuteko.

Txinpart!-en zenbaki honetan, gogora ekarri nahi ditugu gure aurrekoak, gaur egun aitona-amona ditugunak. Gu gaur baldin bagara, izan zirelako eta direlako da. Transmisio horretan lanean ari gara etengabe, ikastolan eremu guztietan, baita aisialdian ere. Euskal Herrian euskaraz ari gaitzen eta gure kultura ondorengoetara iristeko gure aitona-amonek egin duten lana goraipatu nahi dugu. Ikastolak sortzen egin zuten lana nabarmentzekoa da eta eskerrak eman nahi dizkiegu. Bide honetan ere, elkarrekin gaudela adierazi nahi izan dugu aurten, **oholtza elkarbanatuz**.

Haurtzaro Dantza Taldeak herrian eta herrigintzan lan handia egin du eta egiten jarraituko du. Horren adibide dira: Ihoteak, dantzari txiki egunak, auzotako jaiak, Udaburuko sua, Xanistebanak, Euskararen Eguna eta urtean zehar herrian bertan ospatzen diren bestelako ospakizunak, Korrika, esate baterako.



Aurten Haurtzaro Dantza Taldeak, Euskal Herrian barrena bidaiatxo bat egin du eta zazpi lurraldeak zeharkatzen ahalegindu gara, bertako dantzak oinekin dantzatzuz eta mihia ere euskaraz dantzatzuz.



Ikasturte honi amaiera ederra emateko bi urtez behin egiten dugun emanaldia izango dugu. Emanaldi guztiak izaten dira bereziak eta aurtengoa ere hala izan da, baina **pixka bat bereziagoa agian**.

Eskerrik asko

Emanaldian bezala, hemendik ere eskerrak eman nahi dizkiogu, bereziki, Maite Gezala Legorbururi, Haurtzaro Dantza Taldean hasi zenez geroztik aurten arte lan handia egin baitu, beste hainbat gurasorekin batera, noski. Baina aurten izango du azken urtea, Xanistebanetan abuztuaren 4an Haurtzaro Dantza Taldearen izenean antolatzen duen emanaldiaren kudeaketaz arduratzen dela. Mila esker urte hauetan guztietan egindako lanagatik!

Haurtzaro Dantza Taldearen emanaldian, urtetan zehar joste lanak egiten aritu diren ama/amonei ere egin genien aipamena eta ordezkari gisa azken urtetan joste lanak egiten ari den Feli Garañok jaso zuen oroigarria. Eskerrik asko, Feli!

Aurten Haurtzaro Dantza Taldeak, Euskal Herrian barrena bidaiatxo bat egin du eta **zazpi lurraldeak zeharkatzen ahalegindu gara bertako dantzak oinekin dantzatzuz eta mihia ere euskaraz dantzatzuz**. Eskerrik asko Donibane, bidaia honi hitzak jartzeagatik!



ATAUNETIKAN MUTRIKURAINO
MENDI ETA HAREZKOA
HONDARRIBITIK ESKORIATZARA
DOA HERRIZ HERRIKOA
EUSKAL HERRIAK ERDIGUNEAN
DUEN INDAR TA AUSPOA
SENDOTASUNEZ OINAK LURREAN
EGIN DANTZA GIPUZKOA.

LANESTOSAKO IZKIN URRUNA
EDO ONDARRUKO KAIA
BERMEOTIKAN OTXANDIXORA
LUZATUZ GURE BISAIA
EUSKALKI GOXOZ BUSTITZEN DUZU
EUSKAL HERRIKO PAISAIA
ALAI TA GOXO SEGI DANTZATZEN
DOTOREZIAZ BIZKAIA.

ARTIZINIEGATIK OIONERAINO
ERDI ERDIAN LAUTADA
ARAMOIXOTIK ELTZIEGORAINO
LURRALDE EDER BAT BADA
ABESTI BATEK DION ANTZERA
ZAZPIGARRENGO ALABA
HEGO MENDEBALDEKO ERRITMO
BIZIAN DANTZA ARABA.

ZANGOTZAN HASI TA BIDARRAIRA
HERRI ZAHAR BATEN ORROA
BIANATIKAN BIDAXUNERA
EUSKAL HERRIKO ERROA
HIZKUNTZA BERAK EZABATZEN DU
MAPATIK MUGAN LERROA
DANTZA GUZTIAK ZURE OHOREZ
DIRA, GORA NAFARROA.
BOKALEN HASI TA MAKEARA
LEKU LASAIA IDURI
BARDOXETIKAN HENDAIARAINO
ERREKEK URA ISURI
LARRUN MENDIAK ZUTIK JARRIRIK
DENEN ZAINDARI DIRUDI
KRESALAK DUEN FRESKOTASUNEZ
ASTINDU OINAK LAPURDI.

BARDOXETIKAN DOMEZAINERA
GORA BEHERA EROA
URRUSTOITIKAN LARRAINERAINO
IRATIREN ABAROA
EUSKAL HERRIKO LEHENELDIA
ORAINA ETA GEROA
ZURE DANTZERI LOTUA DOA
BIHOTZEKO ZUBEROA

EUSKAL HERRIKO TXOKO GUZTIAK
BIXITATUZ JOAN GARA
HERRITAR ORO GONBIDATUAZ
ATERA DADIN DANTZARA
BAINA HERRI HAU GERORA ERE
HERRI BAT IZANGO BADA
DANTZA OINEKIN EGIN BEHAR DU
ETA MIHIAZ EUSKARA.

Bertsoen egilea:
Donibane Azkarate Badiola



OIARTZO



Oiartzo, gure batxilergo ikastola, ingeleseko titulu ofizialak lortzeko Oxford University-ren zentro aztertzaile

Oiartzo Ikastolak (Orereta eta Haurtzaro ikastolen ikastolak) Oxford University-ren zentro aztertzailea izateko ziurtagiria du, eta A2 mailatik C1 mailara arteko ingeleseko tituluak erdiesteko azterketak egiteko aukera eskaintzen du. Orain arte Oiartzoko bertako ikasleei eskaini zaie horretarako aukera eta aurtendik, Orereta eta Haurtzaro ikastoletako DBH3. eta 4. mailako ikasleek ere badute azterketa hori egitea.

"Oxford Test of English" azterketaren bitartez, ingeleseko ezagutzak neurtu eta ziurtagiria lortzeko aukera eskaintzen dugu, aztertzaile izateko lizentzia duen ikastetxean bertan azterketa bakarra eginda. Ordenagailuz egiten den bi orduko froga da eta hizkuntzen oinarritzko lau konpetentziak neurtzen ditu: irakurketa, idazketa, mintzamina eta entzumena.

Behin azterketa eginda, konpetentzia jakin bat hobetzeko aukera ere eskaintzen du. Hau da, konpetentzietako batean desio den maila lortzen ez bada, hurrengo deialdi batean konpetentzia hori bakarrik hobetzeko aukera du ikasleak (hartara, lortu duen mailaren emaitza ontzeko), ongi eta nahi

bezala egin dituen konpetentzien frogak berriz egiteko beharrik gabe. Ingeles maila konpetentziak neurtzeaz gain, batez besteko maila orokorra ere adierazten du, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua oinarri hartuta. Azterketaren emaitzak hamabost egunen buruan jasotzen dira.

Oxford University-ren "Oxford Test of English" frogaren informazio gehiagorako: www.oxfordtestofenglish.es

Eleaniztasuna, haurtzaroan hasitako ikas-bizitzan egindakoaren uzta

Haur Hezkuntzatik Batxilergora arte lantzen da eleantiztasuna ikastoletan, euskara zutabe hartuta. Haur Hezkuntzatik lantzen da ingelese, eta frantsesa ere bai Bigarren Hezkuntzan. Egindako lanaren agiri ofizialak lortzeko aukera eskaintzen dugu Batxilergoan, Oiartzon: HABEren 3. Euskara maila lortzeko prestaketa (AEKren laguntzaz) eta, jada esan bezala, C1 bat mailara arteko ingeleseko tituluak lortzekoa.



DBH4ko ikasleen agur bertsoa

*Txikitatik jarri giñen,
zuen besoen azpian.
Behar genunin laguntzen,
ta beti gure gañian.
Txalotzekua da zuek,
dakazuten pazientzia.
Ez baita ez lan makala,
gu ola aguantatzia.
Hamahiru urten ondoren,
bukatu da egonaldia.
Ta ez dizuegu aitortu,
dakazuten garrantzia.
Zuek zarete honaino
iristian zergatia.
Eskerrik asko denagatik,
ta gora irakasliak!*

-
Doinua: Habanera



Ikusi nola abestu zuten Ikastola Egunean:
https://youtu.be/-Qo__09PteM



Haurtzaro Ikastola

bizitzarako hezkuntza

DBH 4 - 26. promozioa

2024